

# Aurrera Begira

2014

GAZTEEN  
AURREIKUSPENEI  
BURUZKO  
ADIERAZLEAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Gazteria eta Kirol  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Dirección de Juventud  
y Deportes





## ZER DA *AURRERA BEGIRA*?

Euskadiko gazteek etorkizuna, epe labur edo ertainean, nola ikusten duten jakitea da *Aurrera Begira* ikerketaren helburu nagusia.

Horretarako, gazteen aurreikuspenak aztertu dira, enplegua edo emantzipazioa bezalako funtsezko gaietan arreta jarrita, eta etorkizunarekiko konfiantza indizea sortu da.

Bigarren edizio honekin azter daiteke aurreikuspenek azken urtean izandako bilakaera.





## **ZEHAZTASUN TEKNIKOAK**

### **IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA**

Gazteen Euskal Behatokia.

### **METODOLOGIA**


Kuantitatiboa, inkesta telefonikoen bidez egindakoa.

### **INKESTA KOPURUA**

1512 inkesta 15 eta 29 urte bitarteko gazteei.

### **INKESTAK EGITEKO EPEA**


2014ko azaroaren 12tik 21era.





## GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO 10 ADIERAZLE

- 1 Egungo egoeraren balorazio indizea
- 2 Norberaren poztasun indizea
- 3 Bizitzaren alderdien balantzea
- 4 Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
- 5 Lana aurkitzea aurreikustea
- 6 Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
- 7 Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea
- 8 Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea
- 9 Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
- 10 Etorkizunarekiko konfiantza indizea




## 1

# EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA

## DEFINIZIOA:

Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Gazteak zertxobait baikorragoak ageri dira 2014an, 2013an baino, Euskadiko egoera orokorra bai eta gazteria osoarena ere iaz baino hobeto baloratzen dutelako. Dena den, norberaren egoerak lortzen du kalifikaziorik onena.

## 2

# NORBERAREN POZTASUN INDIZEA

### DEFINIZIOA:

Norberaren lan, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdi, lagun, harreman sentimental edota sexual, osasun, diru-eskuragarritasun eta independentzia pertsonalarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Norberaren poztasun indizea positiboa da, baina 2013an baino baxuxeagoa. Gazteengan poztasun handien eragiten duten bizitzaren arloak familia, osasuna, lagunak eta bizi diren etxebizitza dira.

## DEFINICIÓN:

Bizitzaren hamar alderdirekiko poztasun pertsonalaren eta horietako bakoitzari emandako garrantziaren arteko aldea, bi kasuetan 0tik 100era doan eskala erabilia. Aintzat hartu diren hamar alderdiak honako hauek dira: lana, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdia, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, diru-eskuragarritasuna eta norberaren independentzia.

Garrantziari dagokion puntuaren eta poztasun-mailari dagokionaren arteko aldeak edo azalerak arlo horretan dagoen defizit-maila adierazten du. Distantzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da defizita.

Lana eta dirua dira emandako garrantziaren eta sentitutako poztasun-mailaren arteko distantzia handiena duten arloak. 2013an ere horiek ziren defizit handiena zuten bizitzaren esparruak.




## 4

# LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

## DEFINIZIOA:

Langileen portzentajezko banaketa, urtebeteko epean enplegua galtzeko edo norberaren lan-baldintzek okerrera egiteko arriskuaren pertzepzioaren arabera.




Enpleguarekiko aurreikuspenak hobetu dira. Arrisku-maila baxua hautematen dutenen ehunekoa hamar puntutan handitu da, hau da, gehiago dira urtebeteko epean enplegua ez dutela galduko eta lan baldintzak ez zaizkiela okertuko uste dutenak.



## DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabeen ehunekoa.




2013tik 2014ra nabarmen handitu da urtebeteko epean enplegua aurkitzeko itzaropena eta orain langabezia dauden hamar gaztetik seik itzaropen hori dute.

## 6

# PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA

**DEFINIZIOA:**


Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



Ikasleak baikorragoak ageri dira 2014an, 2013an baino; beren prestakuntzari lotutako lana aurkituko dutela uste dutenen ehunekoa hamar puntutan igo da.

**DEFINIZIOA:**


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



Pixka bat jaitsi da etorkizunean, nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera joan beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa. Jaitsiera horren azalpena hau da: gazteek aurreko urtean baino prestasun handiagoa erakutsi dutela atzerrira lan egitera joateko, eta ez gutxiago antzematen dutelako emigratu beharra.

**DEFINIZIOA:**


Urtebeteko epean emantzipazio-proiektuak burutu ezin izango dituztela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik ezin izango direlako irten edo bertara itzuli beharko dutelako.



Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikusten dute ia gazteen erdiek eta uste hori aurreko urtean baino pixka bat zabalduago dago.

## DEFINIZIOA:


Zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun batzuk aintzat hartuta (langilea, arduratsua, kualifikatua, parte-hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomoa izatea), Euskadiko gazteek gaitasunok zein mailatan dituzten iritziaren batez besteko puntuazioa 0tik 100era doan eskalan.



Gazteen gaitasunekiko konfiantza pixka bat handitu da 2013tik hona. Gazteria baloratzean gazteek beraiek gehien nabarmentzen dituzten ezaugarriak prestakuntza-maila eta lanerako gaitasuna dira.

## DEFINIZIOA:


Norberaren egoerak, gazteenak eta Euskadirenak hurrengo 5 urteetan izango duten bilakaerari buruzko usteen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Epe ertainean egoera hobetzeko konfiantza handitu da. Hamar puntutako igoera 2013an izandakoa baino aurreikuspen baikorragoak azaltzen du, bai norberaren egoerari dagokionez zein gazteria osoarenari dagokionez, baina ez horrenbeste Euskadiko egoera orokorrari dagokionean.



## ONDORIOAK



### **ORAINA ONDO BALORATZEN DA**

Egungo egoerari buruzko iritzia positiboa da eta gazteak pozik daude euren egoera pertsonalarekin. Osasuna eta familia dira gazteen ustez garrantzirik handiena duten bizitzako arloak, bai eta poztasun handiena eragiten dutenak ere.

### **ENPLEGUAREKIKO AURREIKUSPENAK HOBETU DIRA, BAINA EZ EMANTZIPAZIOARI BURUZKOAK**

Epe laburrean enpleguareriko aurreikuspenak lehen baino pixka bat positiboagoak dira, bai lana aurkitzeko, ikasitakoarekin lotuta egoteko, zein ez galtzeko. Bestalde, emantzipazioari erreparatzen badiogu, 2013an bezain zaila hautematen da gogoko emantzipazio-proiektuak aurrera eramatea.

### **ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA HANDITU DA**

Gazteek aurreko urtean baino konfiantza handiagoa dute etorkizunean bai eta gazteen gaitasunetan ere egungo egoerari aurre egiteko.



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Gazteria eta Kirol  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Dirección de Juventud  
y Deportes



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud